

49. Durangoko Azoka: IKASLE EGUNA

TOKIA	EKINTZA	SAIOAK	ADINA MAILA	KOPURUA (gehienez)
 PLATERUENA <small>kontzertu handien plaza</small>	“Euskal Kantagintza kontzertuan” GHETTO taldea	Saio bakarria: ▪ 11:00 – 12:00	DBH eta Batxilergoa	300 ikasle
 SAGUGANBARA <small>TXIKIEN eta HANDIEN GUNEA</small>	“Egun batez idazle” YOLANDA ARRIETA	3 saio: ▪ 10:30 – 11:30 ▪ 12:00 – 13:00 ▪ 14:00 – 15:00	LH 3.zikloa	20-25 ikasle saioko
	“Egun batez sortzaile” OSKAR ESTANGA - MINTZOLA FUNDAZIOA	3 saio: ▪ 10:30 – 11:30 ▪ 11:45 – 12:45 ▪ 13:00 – 14:00	LH 3.zikloa	20-25 ikasle saioko
 AZOKA TB	“Bideoklip saioa” (AMAIA DJ)	2 saio: ▪ 12:00 – 12:30 ▪ 13:00 – 13:30	DBH osoa	25 ikasle saioko
 AHOTSENEA <small>SORTZAILEEN GUNEA</small>	“Ahotsenea ezagutzuz” JOHN ANDUEZA eta REVOLTA PERMANENT taldea	Saio bakarria: ▪ 10:30 – 12:00	DBH 1.eta 2.mailak	100 ikasle
 IRUDIENEA <small>WUO ENTZUNAREN GUNEA</small>	“Bikoizketa tailerra” MIXER BIKOIZKETA ENPRESA eta ZINEUSKADI	4 saio: ▪ 10:30 – 11:30 ▪ 11:45 – 12:45 ▪ 13:00 – 14:00 ▪ 14:15 – 15:15	DBH osoa	25-30 ikasle saioko
 ARETO NAGUSIA <small>HITZAREN GUNEA</small>	“Ametsetik paperera (eta pantailara)” FERNANDO MORILLO - EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA	2 saio: ▪ 10:30 – 11:30 ▪ 12:00 – 13:00	DBH 4.maila	25 ikasle saioko
 KABI@ <small>KULTUR@ 2.0</small>	“Azken joerak hezkuntza eta teknologia esparruan: sortu zure lehen aplikazioa!” GORKA JULIO eta MAITE GOÑI	Saio bakarria: ▪ 11:00 – 12:30	DBH 1. eta 2. zikloak	20-25 ikasle
	“Azken joerak hezkuntza eta teknologia esparruan: robotika gure esku!” GORKA JULIO eta MAITE GOÑI	Saio bakarria: ▪ 12:30 – 14:00 (pixka bat luzatu daiteke)	LH 3.zikloa eta DBH 1.zikloa	20-25 ikasle
 SZENATOKIA <small>AKTIE ESZENAKOEN GUNEA</small>	“Itzalak sortuz” ZURRUNKA antzerki taldea	3 saio: ▪ 10:00 – 10:40 ▪ 11:00 – 11:40 ▪ 12:00 – 12:40	LH 3.zikloa	40 ikasle saioko
Durangoko Museoa	“Hazi sortzen” ARTIUM museoa	3 saio: ▪ 10:00 – 10:40 ▪ 11:00 – 11:40 ▪ 12:00 – 12:40	DBH osoa	50-60 ikasle saioko
	“Kutxa magikoa: kamera estenopeikoa” F-STOP Durango argazki taldea	2 saio: ▪ 11:00 – 12:00 ▪ 12:30 – 13:30	DBH osoa	20-25 ikasle saioko

49. Durangoko Azoka: IKASLE EGUNA



PLATERUENA : “Euskal Kantagintza kontzertuan”

Euskal kantagintzaren kanta ezagun eta entzutetsuen transmisioa helburu, garai eta estilo desberdinak markatu zituzten kanten bertsioren zuzeneko bat eskainiko da, Durangaldekoa den GHETTO taldearen eskutik.

10 abesti inguru: Hertzainak, Kortatu, Mikel Laboa, Bide Ertzean, Joxe Ripiau, Ruper Ordorika, Anari, Zea Mays, Berri Txarrak, Mikel Urdangarin, Anje Duhalde eta Gu Ta Gutarrak. (aukerak)

* *Ikastetxeari eskatzen zaion aurretiazko lana:* Zuzenekoan aurkeztuko diren abestien lanketa egiteko proposamen desberdinak aurkeztuko dituen dosierra bidaliko zaie ikastetxera. Katak, ikuspuntu desberdinetatik lantzeko aukera izango dute ikasgelan (gaia, testuinguru politikoa, doinuak, bertsoak, poetak...) eta kontzertua ikustera beste begi batzuekin etorri.



SAGUGANBARA: “Gu ere sortzaile ”

Oskar Estangarekin kantu baten grabaketa egingo da:

- Kantu baten eskema oinarritzakoa (estrofa-errepika) ezagutzea eta sortzea.
- Etxeko oinarritzako tresnak ezagutzea (ordenagailua, soinu txartela, mikroa eta bozgorailua). Kantu baten grabaketa sinplearen dinamikak ezagutzea.
- Hitzez taldea batuko duen ideia bat bildu, sentipen baikorrak dituen, taldearen nortasun berezia agerian utziko duena eta elikatuko duena.
- Oinarritzako sorkuntzaren “erraztasuna” erakustea, ideia bat, hitz batzuk, musika pixka bat eta teknologia apur batekin, gure sorkuntzatxoak egiteko gaitasunaren eskuragarritasuna iritsi haurrei, beraiek noizbait egin ahal izateko.
- Honen guztiaren “argazki sonoroa” izango dute, kanta helaraziko zaielako ikastetxera.



SAGUGANBARA: “Egun batez idazle: idazketa sortzailerako abiapuntua”

Literaturaren ezaugarri nagusiak abiapuntutzat hartuta, idazketa sortzailearen bidez hurbilduko gara fikziora, talde eta jolas giroan.

Orri zuriaren izuari aurre egiteko baliabideak ikusi eta frogatuko ditugu, nitik gurako bidean, irudimenari eta arkatzari tartea eginez eta idazle izatera jolastuz, oinarritzako baliabideak deskubritu eta trebatzeko bidean.

49. Durangoko Azoka: IKASLE EGUNA



AZOKA TB: “ Bideoklip saioa”

Azoka telebistak, zuzenean, bideo klipez osatutako musika saioa ekoiztuko du. Ikasleek aukera izango dute telebista saio baten ekoizpena barrutik ezagutzeko. Bideoklipak aurkezteko taldeko kide bati elkarrizketa egingo dio aurkezleak, eta ikasleek aukera izango dute zuzenean galderak luzatzeko edo whatsapp bidez mezuak bidaltzeko.

* *Ikasleek ekarri beharrekoa:* Saioan elkar eragiteko, ikasleek mugikorra behar dute, beraz komenigarria da mugikorra ekartzea.



AHOTSENEA: “John Andueza elkarrizketa”

Ahotsenea gunea gertutik ezagutzeko aukera izango dute parte hartuko duten ikasleek eta horretarako, saio bakarrean hiru ekintza eskainiko zaizkizue: Ahotsenearen aurkezpena, idazle batekin elkarrizketa eta musika talde batekin beste elkarrizketa bat.

Saioa hiru zatitan banatuta:

- 10:30-11:00: Ahotsenearen aurkezpena; zer da, nola sortuta, zelan kudeatu...
- 11:00-11:30: Revolta Permanent taldearekin elkarrizketa
- 11:30-12:00: John Andueza idazlearekin elkarrizketa, “San Ferminetan, Lesakan” liburuari buruzkoa



- **Revolta Permanent** taldearekin solasaldi musikatua. Gazteekin hitzaldia egitea planteatzen da, ibilbidea azalduz, arazoak, taldearen eboluzioa, kantuak nola sortzen dituzten... Horrek guztiak rao-musika izango du bidelagun.
Revolta Permanent rap taldeak “Revolta” diskoa (Gaua Records) dakar Azokara. Rap eta hip-hop soinuak elektronikaz lagundurik dira diskoan aurkitzen direnak. Estilo ezberdinekin erlaziona daitezkeen abestiak; antzinako eskola, eskola berriarekin elkartzean sortzen den magia.
Revolta Permanent facebook-en eta baita twitter-en @revolta_music
- **John Andueza idazlea** “San Ferminetan, Lesakan” liburuaz mintzatuko da ikasleekin ordu erdiz.

49. Durangoko Azoka: IKASLE EGUNA

Donostiako Bilintx institutura itzuli da John Andueza Larunbatean Bukowskin nobela arrakastatsuen ondoren; oraingoan, DBH 4.mailako abenturak kontatzen dizkigu. Danel eta Ximon lagunak dira protagonistak, baita Ximonen andregaiia Amaia, eta gelako tribu guztietako ikasleak ere: apatxeak, komantxeak, txerokiak, txeieneak, moikanoak eta baita payuk despistaturen bat ere. Ikasketa-amaierako bidaia egiteko asmoa dute, eta horretarako dirua lortzeko hainbat ekintza antolatuko dituzte. Baina ezusteko batek planak guztiz aldarazi beharko dizkiete.

John Andueza (Oregon, Estatu Batuak, 1966). Telebista eta zinearen saltsa-maltsan nahastuta ibili da luzaroan. Orain bere lehenengo nobela argitaratzeko fortuna izan du; hamabost urteko neska-mutil kuadrila baten kronika martxosoa aukeratu du debuta egiteko.

* *Ikastetxeari eskatzen zaion aurretiazko lana*: John Andueza idazlearen “San Ferminetan, Lesakan” liburua irakurrita eta landuta izatea eta galderak prestatuta, solasaldian parte hartzeko.



IRUDIENEA: “Bikoizketa tailerrak”

Telebistan ohikoak diren telesail eta filmetako pasarteak nola bikoizten diren ikasiko dute gazteek, bikoiztaile profesionalen eskutik.

Bikoizketa gauzatzeko prozesua ezagutuko dute lan originalak ikusi eta ahotsa grabatzen dutelarik: irakurketa, entsegua, pertsonaiaren ahotsa bilatzea, interpretazioa...

Iazko tailerrei buruzko erreportaia: <http://www.hamaika.eus/tb/bideo/77872>



ARETO NAGUSIA: “Ametsetik paperera (eta pantailara)”

Idea bat ametsen txokoan jaiotzen denetik, liburu bihurtu arteko ibilbidean esku askok hartzen dute parte. Profesional ugari laguntzen dute liburua editatzearen abenturan, sarri isilean bada ere. Tailer honetan, horietako baten lan ia ezkutua ezagutuko dugu: editorearena berarena.

www.editoreak.com



KABI@: “Azken joerak hezkuntza eta teknologia esparruan”

Helburua da ikasle eta irakasleei, modu praktiko batean, hezkuntza eta teknologian dauden azken joeren berri ematea: mugikorrek hezkuntzaren alorrean eskain ditzaketen aukerak, segurtasun aholkuak, programatzen hasteko lehen urratsak...

Bi tailer:

- **Sortu zure lehen aplikazioa!** → Tailerraren sarreran mugikorrek segurtasunaz erabiltzeko hainbat aholku emango ditugu: konfigurazioa, antibirusak, netiketa... Jarraian, App Inventor aplikazioarekin, aplikazio bat programatzen ikasteko lehen urratsak emango ditugu.
App inventor: <http://appinventor.mit.edu/explore/ai2/beginner-videos.html>
- **Robotika gure esku!** → Scratch eta Legorekin, oso modu errazean, programatzen hasteko lehen

49. Durangoko Azoka: IKASLE EGUNA

urratsak emango ditugu. Taldeka abiatuko gara, talde lana sustatuz eta sormena bultzatuz. Tailer honek eskaintzen duen berezitasuna da batxilergo ikasle talde bat izango dela irakasle eta gidari lanak egingo dituen.

Scratch: <http://scratch.mit.edu/>



*** Ikastetxeari eskatzen zaion aurretiazko lana:** Komeniko litzateke azaltzea zertara doazen eta zeintzuk diren helburuak. Horretarako, ikasleak edo ikastetxeak hautatuta daudenean, arduradurarekin harremanetan jarri: zein mugikor mota duten galdetu, helburuak zehaztu...

Sortu zure lehen aplikazioa! Tailerrean komeni da App Inventor aplikazioa jaitsita ekartzea. Ahal izanez gero. Bestela ez da egongo arazorik momentuan jaisteko.



SZENATOKIA: "Itzalak sortuz"

Itzal-txotxongilo antzezlan baten sekretu eta teknikak ezagutuko ditugu. Horretarako, ikasleek itzal txotxongiloak sortu eta oihalaren atzeko eszenatokia ezagutuko dute. Proiektore eta transparentzien teknika, soinua eta txotxongiloen manipulazio erakusketa. Txotxongiloekin jolasteko aukera izateaz gain, "Iraungorriko Marimiri" ikuskizunaren ataltxo bat ikusiko dute. Era honetan, ikasleei, normalean oso ezaguna ez duten, itzal-txotxongiloen munduan denbora batez murgildu eta gozatzeko aukera eskaini nahi diegu.



zurrunkateatro.wordpress.com

*** Ikastetxeari eskatzen zaion aurretiazko lana:** Nahi izanez gero, itzal-txotxongiloek historian zehar eta herri eta kultura ezberdinetan izan dituzten teknika eta ereduak bilatu eta aztertzeraz gonbidatzen ditugu. Itzal-txotxongilo tradizioa oso zaharra baita eta munduko herrialde askotan oso zabaldua eta errotua egon baita. Hala nola, China, Tailandia, Grezia, India...

49. Durangoko Azoka: IKASLE EGUNA

DURANGOKO MUSEOA: “Hazi sortzen”

Material sinpleekin (kartulinak, artaziak eta kola barrak) manipulatzeko esperimendatuko da. Forma ezberdinetako irudiak moztu eta plano baten itsatsiko dira, 3D formak hasten ikusteko intentzioarekin. Ikasle bakoitzak barne hausnarketa eta dialektika propioa garatuko du proiektuarekin.

www.artium.org

DURANGOKO MUSEOA: “Kutxa magikoa: kamera estenoipekoa”

Argazki kameraren oinarriak lantzeko tailerra. Ikasleek, beraiek egindako kamerarekin (kutxa ilunekin) argazkiak aterako dituzte, gero laborategian irudia nola sortzen den ikusi ahal izango dutelarik.

EGIN EZAZU ZURE KAMERA ESTENOPEIKOA



* *Ikasleek ekarri beharrekoa:* Interesgarria izango litzateke, ikasleek beraiek ekartzea kutxa edo pote bat.